


## Lagun izoztua



Sarrionandia, Joseba  
Elkar, 2001

Idioma: Euskera  
Público: Adulto  
Páginas: 433  
Ejemplares: 12

Oroimena eta hitza galdu ditu Goio, [izoztuta] geratu da Bluefieldsgo bere erbestean, eta hari laguntzera doa Maribel, errefuxiatuen postaria; Ekuadorrera eraman nahiko du sendatzera, han bizi baita paper faltsuekin Andoni, Goioen ikaskide izandakoa, baina bidaia ez da inondik ere erraza.

Abiapuntu horrekin, hiru narrazio-hari josten dira kontrapuntuan: Maribelek Goioen gaixotasunaren eta laguntzen dien Urioste familiaren kronika egiten du, orainaldian; Andonik, berriz, 14 urte zituela Goioekin batera Kalaportuko jesuitenean igarotako ikasturtea oroituko du; eta narratzaile orojakile batek geroaldian kontatu edo iragarriko digu nola Goio, sendatu ostean, Antartikara doan espedizio zientifiko batean.

Managuan, etxetik irten ezinik bizi da Armando —benetako izenez Josu—, Maribelen senarra. Ogia egiten ari ez bada idazmakinarean aurrean ematen du eguna, tip tip tap tip top, itxuraz sekula amaitzen ez den nobela zirriborratzen. Bera dugu egiazki istorio hauen guztien asmatzailea: bera bezalako jendemodu deserrotua barrendik ezagutu nahi du, ez leku batean ez bestean bizi ezinaren esperientzian arakatu, denborak denoi egiten dizkigun zauri eta tolesdurak erakutsi, Maribelekiko maitasunaren itzaltzea esplikatu edo besterik ezean imajinatu.

Gai, garai eta gertaleku ugariko eleberria dugu Lagun izoztua, baina, iceberg baten antzera, askoz gehiago da sujeritzen zaiguna, irakurlearen gogoan izotz blokeen moduan noraezean geratuko den sentipen, ideia eta irudien mundu irudimenezko eta hala ere erreala.